



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urtarrilaren 14a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00011. 19/2024 Foru Legea, abenduaren 26koa, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/ITP-00001. Interpelazioa, Errenta Bermatuari buruzko Legearen aldaketari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (4. or.).

—11-25/ITP-00002. Interpelazioa, gazteriaren arloko politikari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (5. or.).

—11-24/MOC-00147. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko izapideak abiaraz ditzan "Vianako Printzea" sariaren izena "Vianako Printzesa" izan dadin eta Errege-familia saria emateko ekitaldira gonbida dezan. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak ezetsi du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-24/POR-00388. Galdera, Nafarroako Gobernuak Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 36. artikuluan ezarritako kontratu-erreserba betetzeari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (6. or.).

—11-24/POR-00389. Galdera, Nafarroan kokatutako zenbait enpresak helbide fiskala aldatzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (7. or.).

—11-24/POR-00390. Galdera, trafikoko aztertzaile-etzari eta gidabaimena ateratzeko azterketa praktikoa egiteko atzerapenari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (7. or.).

—11-25/POR-00001. Galdera, alokairuko etxebizitza ordainerrazak eraikitzekeo partaidetza publiko eta pribatuko enpresa mistoari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (8. or.).

—11-25/POR-00002. Galdera, Building and Architecture Institute abian jartzeko lankidetzeta-hitzarmenaren ondoriei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (8. or.).

- 11-25/POR-00003. Galdera, Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzaren Behatokiari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00005. Galdera, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak eta Kanarietako lehendakariak bidaidetik gabeko adingabeen egoera dela-eta egin duten proposamenari buruzkoa. Javier Ollo Martínez jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00006. Galdera, errotabirusak Nafarroan duen intzidentziari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00007. Galdera, lehiakortasun fiskalari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00008. Galdera, Nafarroan ETaren eta etakideen alde egindako ekitaldiei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00009. Galdera, Nafarroan etxebizitzaren arazoa konpontze aldera beste enpresa bat diru publikoarekin sortzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00010. Galdera, Tuterako tren-geltokiari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00011. Galdera, interes-taldeen erregistro publikoari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00012. Galdera, departamentu eskudunak memoriaren arloan 2025erako aurreikusten dituen ekimenei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00013. Galdera, BSHri buruzko bilera dela-eta. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00014. Galdera, BSHk Nafarroan izanen duen etorkizunari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00015. Galdera, Nafarroan lan- eta industria-basamortua ekiditeko Garapen Ekonomikorako planari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00016. Galdera, enpresen deslokalizazioari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00017. Galdera, 2024. urteko enpresa-jarduerari eta 2025erako perspektibei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00018. Galdera, EH Bildurekin egindako itun ekonomiko eta fiskalei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00019. Galdera, jakiteko ea zerk eragotzi duen Nafarroako Ubidearen 2. faseari buruzko azterlan ekonomikoari buruzko informazioa eskuratzea (11-24/PEI-00909). Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (17. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (17. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00011. 19/2024 Foru Legea, abenduaren 26koa, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa

AKATS ZUZENKETA

2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 19/2024 Foru Legean akatsa atzeman baita –foru legea 2024ko abenduaren 31ko 265. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, honako zuzenketa hau egiten da aipatu foru legean:

III. eranskinean, honako hau dioen tokian:

"810001-81100-7609-458104 PRIN25, Trf. Mendabiako Udalar, TBA transformazio eta banaketako azpiestazioa eta azpiegitura osagarria industrialdean	1.000.000"
--	------------

Honako hau esan behar du:

"810001-81100-7609-458105 PRIN25, Trf. Mendabiako Udalar, TBA transformazio eta banaketako azpiestazioa eta azpiegitura osagarria industrialdean	1.000.000"
--	------------

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/ITP-00001. Interpelazioa, Errenta Bermatuari buruzko Legearen aldaketari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa

MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako interpelazioa, Errenta Bermatuari buruzko Legearen aldaketari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako 2023-2027 eperako programa-akordioak duen gizarte-politikei buruzko atalean jasotzen diren puntuetako bik erreferentzia egiten diote, batetik, errenta bermatuaren eredua funtsezko tresna gisa sendotzeari gizarte-babeseko eta txirotasunaren aurkako borrokan, horretarako ezarritik, kasua bada, Nafarroan dagoen diru-sarrera sistemaren koherentzia mantentzeko beharrezkoak diren legegintzazko aldaketak; eta, bestetik, gizarteratze-eskubidean aurrerapausoak eman beharri.

Horrela, bada, 15/2016 Foru Legea 8 urtez aplikatu ondoren, zeinak arautzen baititu gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubideak, beharrezkotzat jotzen da lege hori berrikiusi eta eraginkorrago eta ahaltsuago egitea.

Hori guztia dela-eta, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuari interpelazioa aurkezten diogu, Nafarroako Gobernuak Errenta Bermatuaren gaur egungo Legea moldatzeari buruz darabilen politika orokorraren gainekoa.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: María Olga Chueca Chueca

11-25/ITP-00002. Interpelazioa, gazteriaren arloko politikari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako interpelazioa, gazteriaren arloko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, Nafarroako Gobernuari honako interpelazio hau aurkezten dio, gazteriaren arloko politikari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Enplegua, emantzipazioa eta osasun mentala dira nafar gazteen problema nagusiak. Gazteek egun bizi duten egoera ikusita, jakin beharrekoa gertatzen da ea zer neurri hartuko dituen Gobernuak egungo egoera aztertzeko eta identifikatzeko, eta zer ekintza planteatuko duen egoera hori itzulitzeko.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/MOC-00147. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita egin beharreko izapideak abiaraz ditzan "Vianako Printzea" sariaren izena "Vianako Printzesa" izan dadin eta Errege-familia saria emateko ekitaldira gonbida dezan

KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAK EZETSI DU

2025eko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, Legebiltzarreko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak ezetsi egin du honako mozio hau: Nafarroako Gobernua premia-tzen da egin beharreko izapideak abiaraz ditzan "Vianako Printzea" sariaren izena "Vianako Printzesa" izan dadin eta Errege-familia saria emateko ekitaldira gonbida dezan.

Mozioa Irene Royo Ortín andreak aurkeztu zuen, eta 2024ko azaroaren 22ko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00388. Galdera, Nafarroako Gobernuak Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 36. artikuluan ezarritako kontratu-erreserba betetzeari buruzkoa*MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 36. artikuluan ezarritako kontratu-erreserba betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuen Ganberak "Nafarroako Kontu Orokorrak, 2023ko ekitaldia" izeneko txostenean jasota utzi duenez, Nafarroako Gobernuak behin eta berriz urratu duela Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 36. artikuluan jasotzen den kontratu-erreserba:

Nafarroako Gobernuak erreakzionatzeko asmorik ba al du eta serio jarriko al da lanean legezko betebehari hori betetzeko? Izan ere, eragin zuzena dauka gure erkidegoko pertsonarik zaugarrienen enpleguan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/POR-00389. Galdera, Nafarroan kokatutako zenbait enpresak helbide fiskala aldatzeari buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, Nafarroan kokatutako zenbait enpresak helbide fiskala aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garatek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer arrazoi dago Nafarroan kokaturik dauden zenbait enpresak bere helbide fiskala aldatzeko?

Iruñean, 2024ko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-24/POR-00390. Galdera, trafikoko aztertzaile-ezari eta gidabaimena ateratzeko azterketa praktikoa egiteko atzerapenari buruzkoa

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egindako galdera, trafikoko aztertzaile-ezari eta gidabaimena ateratzeko azterketa praktikoa egiteko atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilari Amparo López Antelo andreak ahoz erantzun dezan:

Gauza jakina da Nafarroan atzerapen handia dagoela gidabaimena –modalitatea zein ere den– ateratzeko azterketa praktikoa egiteko, behar adina aztertzaile ez dagoelako. Egun, 5.000 nafar baino gehiago dago horren zain.

Nafarroako Gobernua zer ari da egiten Barne Ministerioaren aitzinean, nafarrei zuzenean eragiten dien egoera hori konpontzeko eta bideratzeko?

Iruñean, 2024ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-25/POR-00001. Galdera, alokairuko etxebizitza ordainerrazak eraikitzeko partaidetza publiko eta pribatuko enpresa mistoari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, alokairuko etxebizitza ordainerrazak eraikitzeko partaidetza publiko eta pribatuko enpresa mistoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-

aren babesean, honako galdera hau egiten dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den abenduan, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen enpresa misto bat sortzeko asmoa duela, partaidetza publiko eta pribatukoa, alokairuko etxebizitza ordainerrazak eraikitzeko. Ekimen horrek espektatibak eta galderak eragin ditu bere funtzionamendua, lortu nahi diren helburu zehatzak eta etxebizitza bat lortzeari dagokionez izan dezakeen inpaktua direla-eta.

Partaidetza publiko eta pribatuko enpresa misto horrek nola lagunduko du hobetzen alokairuko etxebizitza ordainerrazaren eskaintza gure erkidegokian?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/POR-00002. Galdera, Building and Architecture Institute abian jartzeko lankidetzahitzarmenaren ondoriei buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Building and Architecture Institute abian jartzeko lankidetzahitzarmenaren ondoriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi, zure departamentuak Building and Architecture Institute abian jartzeko lankidetzahitzarmena sinatu zuen Etxebizitza eta Hiri Agendako Ministerioarekin.

Hitzarmen horrek zer ekarriko dio Foru Administrazioari?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/POR-00003. Galdera, Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzaren Behatokiari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzaren Behatokiari buruzkoa.
 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
 3. Osoko Bilkuran izapidetzea.
- Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak urtarrilaren 16ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer eginkizun izanen du Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzaren Behatokiak?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/POR-00005. Galdera, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak eta Kanarietako lehendakariak bidaidetik gabeko adingabeen egoera dela-eta egin duten proposamenari buruzkoa

JAVIER OLLO MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Ollo Martínez jaunak egindako galdera, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak eta Kanarietako lehendakariak bidaidetik gabeko adingabeen egoera dela-eta egin duten proposamenari buruzkoa.
 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
 3. Osoko Bilkuran izapidetzea.
- Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Ollo Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakari

María Chivite Navascués andreak urtarrilaren 16ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bidaidetik gabeko adingabe atzerritarrek Espainiako lurraldean duten egoera dela-eta joan den abenduan egin zen Lehendakarien XXVII. Konferentzian iragarritako proposamenaren ondotik, Imanol Pradales lehendakariak eta Fernando Clavijo Kanarietako lehendakariak proposamen bat helarazi zieten autonomia-erkidegoetako lehendakariari, migrazio-kudeaketari buruzko lankidetzahitzarmen baterakoa, eta elkartasunerako nahiz lurralde-erantzukidetasunerako deia egin zuten. Proposamenean, besteak beste, Migrazioari buruzko Plan Estrategiko bat jasotzen da, bai eta lege-dekretu baterako proposamen bat ere, bidaidetik gabeko adingabe atzerritarren banaketa ezohikoa egin dadin, halako moldez non neska-mutiko horiendako arreta eta haien duintasunarekiko errespetua bermatzen ahalko baitira.

Hauxe jakin nahi dugu: Nafarroako Gobernuak zer erantzun eman dio proposamen horri?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Javier Ollo Martínez

11-25/POR-00006. Galdera, errotabirusak Nafarroan duen intzidentziari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, errotabirusak Nafarroan duen intzidentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarri-

takoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den abenduan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak erabaki zuen 2025eko urtarriletik aitzina jaiotzen diren umeentzako txerto-egutegian sartzea errotabirusaren aurkakoa. Errotabirusak gastroenteritis akutua eragiten du, eta horrek deshidratazio larria erakar dezake, are gehiago bizitzako lehenbiziko bi urteetan gertatzen denean.

Zeintzuk dira birus horrek Nafarroan azken urtean eragindako infekzioaren datuak? Txerto horrek zer efektu izatea aurreikusten da?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: María Teresa Esporrín Las Heras

11-25/POR-00007. Galdera, lehiakortasun fiskalari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, lehiakortasun fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun den José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eusko Jaurlaritzak beste zerga-arintze bat onetsiko duela jakinik, zure Gobernuak zer neurri hartuko du Euskal Autonomia Erkidegoaren aldean lehiakortasun fiskala galtzen ez jarraitzeko?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-25/POR-00008. Galdera, Nafarroan ETaren eta etakideen alde egindako ekitaldiei buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Nafarroan ETaren eta etakideen alde egindako ekitaldiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

COVITEren erradikalizazio-behatokiaren araberako, 2024an 60 ekitaldi egin ziren Nafarroan ETari eta etakideei babesa emateko. Hori ikusita, Nafarroako Gobernuak zer egin du eta zer egingen du?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-25/POR-00009. Galdera, Nafarroan etxebizitzaren arazoa konpontze aldera beste enpresa bat diru publikoarekin sortzeari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Nafarroan etxebizitzaren arazoa konpontze aldera beste enpresa bat diru publikoarekin sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Zergatik uste duzu Nafarroan etxebizitzaren arazoa konpontzeko enpresa berri bat sortu beharra dagoela diru publikoarekin?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-25/POR-00010. Galdera, Tuterako tren-geltokiari buruzkoa*DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, Tuterako tren-geltokiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako

aren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak 2025eko urtarrilaren 16ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Abiadura Handiko Trena Nafarroara iristearen auzia etengabe ageri da eztabaida politikoan. Azken hilabeteotan, eztabaida hori Tuterako geltokiaren kokapenari buruzkoa izan da gehienbat. Halatan, ikusi dugu nola zenbait eragilek beren hautuak jakitera eman dituzten, baina hautu horiek ez dira modu informatuan iristen herritarrengana, hots, herritarrek zuzenean jakiteko moduan zer abantaila eta zer eragozpen daukan proposamen horietako bakoitzak.

Nafarroako Gobernuak zer mekanismo taxutu du dauden aukerak jakitera emateko, herritarren parte-hartze aktiboa bermatuta?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-25/POR-00011. Galdera, interes-taldeen erregistro publikoari buruzkoa*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, interes-taldeen erregistro publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak honako galdera hau egiten dio Lehendakaritzari eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusten du onetsiko duela interes-taldeen erregistro publikoa?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/POR-00012. Galdera, departamentu eskudunak memoriaren arloan 2025erako aurreikusten dituen ekimenei buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, departamentu eskudunak memoriaren arloan 2025erako aurreikusten dituen ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako

eta Euskarako kontseilari Ana Ollo Hualdek urtarrilaren 16ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Memoriaren arloko politika publikoak denboran zehar mantenduko den estrategia gisa eta ikuskerara integral gisa taxutzen dira, gertakari edo efemeride jakin batzuez harago. Hori horrela bada ere, egia da gertakari edo efemeride jakin horiek elementu sinboliko gisa baliatzen ahal direla politika horien ezagutarazpena eta ekintza indartzeko.

Franco diktadorearen heriotzaren 50. urteurrena da efemeride horietako bat, eta zenbait instituzio eta entitate ekitaldi- eta ekimen-egitarau bat ari dira iragartzen.

Honako hau galdetu nahi dizugu: Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak zer ekimen darabil gogoan testuinguru honetan, bere lidergo eta eskumen-esparrutik, 2025 honetarako?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00013. Galdera, BSHri buruzko bilera dela-eta

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, BSHri buruzko bilera dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak urtarrilaren 16ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer balorazio egiten duzu Nafarroako Gobernuak, Industria eta Turismo Ministerioak eta BSH taldearen zuzendaritzak joan den ostiralean egindako bilerari buruz?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-25/POR-00014. Galdera, BSHk Nafarroan izanen duen etorkizunari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, BSHk Nafarroan izanen duen etorkizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urtarrilaren 16ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, Industria eta Turismo Ministerioak eta BSHren Alemaniako ordezkariak joan den ostiralean egindako bileraren ondotik, zeina izan baitzen hozkailu eta plater-garbigailu konpaktuen fabrikaziorako Ezkizozko planta ixteko prozesua abiatzeaz enpresak duen asmoari buruzkoa: zer etorkizun du BSHk Nafarroan?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00015. Galdera, Nafarroan lan- eta industria-basamortua ekiditeko Garapen Ekonomikorako planari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan lan- eta industria-basamortua ekiditeko Garapen Ekonomikorako planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Chivite andreak eta bere Gobernuak ba al dute garapen ekonomikorako inolako planik, ekiditekoa 2025ean handitzen segitzea Nafarroa jadanik bihurtzen ari den lan- eta industria-basamortua?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: M^{re} Teresa Nosti Izquierdo

11-25/POR-00016. Galdera, enpresen deslokalizazioari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, enpresen deslokalizazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak

Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gero eta ohikoagoa da kostuak merkatze aldera beren jarduera beste herrialde edo leku batera eramaten duten multinazionalen enpresa-deslokalizazioa. Jokabide hori XX. mendearen amaiera aldean hasi zen gertatzen; hau da, ekonomiaren globalizazioa ondasunen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea finkatu zuenean. Azken urteotan, Nafarroako industriarendako mehatxurik handienetako bat bihurtu da deslokalizazioa. Enplegu-galerarako arrisku handi bat da.

Zenbat aldiz eta zenbat enpresari aplikatu zaio, indarrean sartu zenetik, Enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzko abenduaren 16ko 18/2020 Foru Legea? Kontseilariaren ustez, lege horrek zer eraginkortasun du enpresak Nafarroan sustraitzeko pizgarri gisa eta haien deslokalizatorako kontrapizgarri gisa?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-25/POR-00017. Galdera, 2024. urteko enpresa-jarduerari eta 2025erako perspektibei buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, 2024. urteko enpresa-jarduerari eta 2025erako perspektibei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2025eko urtarrilaren 16ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer balorazio egiten du 2024ko enpresa-jarduerari dagokionez, eta zer uste du ekarriko duela arlo horretan 2025ak?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-25/POR-00018. Galdera, EH Bildurekin egindako itun ekonomiko eta fiskalei buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, EH Bildurekin egindako itun ekonomiko eta fiskalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun den José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oposizioan zeundenean, EH Bilduk Nafarroako ekonomia eragozten zuela esaten zenuen; orain, berriz, talde politiko horrekin hitzartzen dituzu neurri ekonomiko eta fiskal guztiak. Zergatik?

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-25/POR-00019. Galdera, jakiteko ea zerk eragotzi duen Nafarroako Ubidearen 2. faseari buruzko azterlan ekonomikoari buruzko informazioa eskuratzea (11-24/PEI-00909)

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

2025eko urtarrilaren 13an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Miguel Bujanda Cirauqui jaunak eskatu du, Legebiltzarreko Erregelamenduko 16.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, deitzen den lehenbiziko Osoko Bilkuran sar dadila galdera ezohiko bat, zeinaren bidez jakin nahi baita ea zerk eragotzi duen 11-24/PEI-00909 espediente-zenbakiari buruzko informazioa berehala eman dadin Mahaiak egindako errekerimendua betetzea.

Aipatu artikuluekin eta Erregelamenduko 42.1 seigarrena eta zazpigarrena artikuluekin bat, ERABAKITZEN DA:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera ezohikoa, zeinaren bidez jakin nahi baita ea zerk eragotzi duen Nafarroako Ubidearen 2. faseari buruzko azterlan ekonomikoari buruzko informazioa eskuratzea (11-24/PEI-00909).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Deitzen den lehenbiziko Osoko Bilkuran izapidetu dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledunak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2025eko martxoaren 6ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urtarrilaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledunak Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2025eko martxoaren 6ko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

